

## Chomskyren arauak eta hizkuntz jabekuntza

Andoni Barreña

**C**homskyk proposaturiko hizkuntzari buruzko teoria kolokan ei dago. Baina agian, Chomskyren eta bere jarraitzaileen iritzien funtsari egundo baino sendoago eusteko arrazoiak ere egon daitezke.

Ez dut uste gramatika sortzailearen bidea aukeratu duten zientzilarien asmoa teoria itxi eta amaitua osatzea denik. Noski, etorkizunean hori lortzea izan daiteke helburua, baina ez, inola ere ez, une honetan hori lortu dutelako usteari eustea. Beharbada Gramatika Unibertsalaren aldeko teoriaren bultzatzaileek hasieratik jakin dute zientzilaria guztien artean eraikitzen ari diren etxean harri bat besterik ez dutela jarri. Eta inoiz harri hori lekuz aldatu behar dela ere esan dute. Jakin badakite arazoaren giltza edo argipena zein den ez dakitela, baina horren bila dihardute.

Baina zelan ulertzen dute sortzaileek delako Gramatika Unibertsala? Nola liteke gramatikaren eta sintaxiaren jabekuntza bideratzen duen ahalmena gizakiok genetikoki daukagula esatea? Zein motatako hornia da giza hizkuntzaz jabetzea ahalbidertzen duena?

### Horni genetikoa

Chomskyren arabera gure ezagutza-sistemaren eta berau zuzendu duen esperientziaren artean izugarrizko jauzia dago. Gizakiak duen esperientzia hain mugatua izanik, zelan azal ezagutza-sistemaren zehaztasuna eta aberastasuna? Bere ustez, ezagutza-sistema gizakiaren esperientziaren eta bere organismoak hura eraikitzeko eta ihardunean jartzeko darabilen metodoaren elkar-eraginaren ondorioa da.

Zein eta zelakoa da gizakiok daukagun horni genetikoa? Bere iritziz, garuna da guzti hau garatzea ahalbidertzen duen horni genetikoa, hots, gizakiok eguneroko bizitzan daukagun esperientzia mugatutik eraiki dugun ezagutza-sistemarainoko jauzia bideratzen duen ballabidea. Horni genetikorik gabe, ez dago giza garunik. Eta garuna da, hain zuzen ere, gure ezagutza-sistema bideratzen duena: giza espeziearen gizabanako guztiarena, alegia. Eta gainera, horni genetikoari esker garatu dugun garunak giza ulermenaren eta pentsamenduaren oinarria izan behar du.


Hizkuntza gizakiok ulermenerako eta pentsamendurako eraiki dugun sistema da. Edo zehatzago esanik, giza garunaren garatzea bideratu duen sistema. Gizakiok beraz, neurri batean behintzat, hitz egiteko ahalmena heredentzia genetikoari zor diogula pentsa dezakegu. Eta, gizakiok beste abereengandik bereizten gaituen

Hizkuntzalari sortzaileek diotenez, gizakiak gramatikaz jabetzeko ezagutzen duen ahalmena heredentzia genetikoari zor dio. Giza garunak bideratzen du hitz egiteko gaitasuna.



ezaugarrietariko bat hitz egiteko ahalmena da, gure munduaren historian zehar, mutazio genetikokoak eta aukeraketa naturalak elkarri eraginda, organismo-espezie berriak sortu direlarik. Horrela, pentsa dezakeen eta mintza daitekeen izakia sortu da: *homo sapiens sapiens*-a, alegia. Gizakiok hizkuntza darabilgun baka-

Haurrek genetikoki jasotzen duten hizkuntz hornia hizkuntza zehatzen gaineratik dago. Haltsarre-multzo abstraktua da eta, nolabait, hizkuntza natural guztiak besarkatzen ditu.



rrak gara, eta gizaki orok ezagutzen du ahalmen hori. Hala ere, gizakiok, edo behar bada hobe haurrak, giza ingururik gabe ezin daitezke hizkuntza zehatz batez jabe. Hau da, giza inguruan soilik gara daitezke giza hizkuntzak. Edozein haurrek edozein giza hizkuntza gara badezake, eta horrela denik ez dut uste inork ukatuko duenik, argi dago hizkuntza partikularrak ez daudela biologikoki hornituak. Guraso armeniarrek dituen haurra inguru euskaldunean jaiotzetik hazten bada, inork ez du za-

lantzan jarriko haur horrek eus-kara ikasiko duenik. Beste kontu bat, noski, garun-kalteak jasaten dituzten gizakiena da.

Gizakiok biologikoki daukagun nolabaiteko hizkuntz hornia, beraz, hizkuntza partikularren gaineratik dago. Nolabait, giza hizkuntza partikular guztiak batzen dituen sistemaren bat izan behar du.

Gainera, gizakiok ez dugu hizkuntz ahalmena aukeran, giza inguruan haziz gero derrigortzat dugu hizkuntzaz jabetzea, giza normaltasun ezean izan ezik, noski. Ez dugu geure hitz egiteko ahalmenaren garapena gurata kontrolatzen, gibela haztea edo

ikusmena garatzea kontrolatzen ez ditugun moduan.

## Hizkuntzaren jabekuntza eta esperientzia

Baina nola izan liteke haurrak bere ama-hizkuntzaz jabetzea, jasotzen duen hizkuntz esperientzia mugatua eta okerre betea bada?

Chomskyk hiru multzotan sailkatzen du eragozpen hau: 1- Haurrek sarritan perpaus amaitugabeak, etenak edo akatsez eraikiak entzuten dituzte. Askotan

hizkuntza sinplifikatu ere egiten zaie. Aipatutako ekoizpen guztiak haurrak entzuten duenaren ehuneko bosta baino ez balira ere, zelan lortzen du eredu zuzena eraikitzea? 2- Haurrak perpaus-kopuru mugatua baino ez du entzungo, baina gai da inoiz entzun ez dituen perpausak ekoizteko. Esperientzia mugatua izanik ere, ekoizpen mugagabea gauzatzeko ahalmena ote du? Pentsa dezagun, bestela, nola eraikitzen duen edo erabil dezakeen, erlatiboaren errekurtsibitatea, menderakuntza edo koordinazioa bera. Gramatika sortzailea da, egundo entzunbakoia ulertzeko eta ekoizteko ahalmena dugu, eta ulermen-ahalmen bapatekoa gainera. 3- Haurrak hizkuntzaren ezagutza kontzientzizgabea du. Badaki zer esan daitekeen eta zer ez, eta guzti hori egundo zuzenean ezer esan ez zaiolarik, erakutsi ez zaiolarik. Sarritan eta goiz, gai da bere hizkuntza gramatika-arauz zuzentzeko ere. Ezagutza hau ez dago, beraz, entzuten duen inputean; ez baitu hizkuntza teorikoki ikasten. Gainera ez du esperientzia ezezkoarrik, hau da, txarto dago hainbat forma ez du inoiz entzuten eta, haatik, badaki txarto daudena. Inork ez dio erakusten 4 edo 5 urteko haur bati, adibidez, ondoko perpausetatik zein dagoen zuzen eta zein ez:

*Zein lagun esan duzu etorri dela?  
?Zein lagun esan duzu ea etorri den?*

*\*Zein lagun esan duzu etorri denean joan zarela?*

Eta kontuan izan hiru perpausentan mendeko *etorri* aditzaren subjektua dela perpausaren hasieran jarri duguna. Lehenengoan horrela egiten dugu, baina hirugarrenean ezin dugu. Eta haurrak badaki zer ahal duen eta zer ez. Hala ere, esan beharra dago, seguruenik, desegokiak diren perpausak egundo ere ez dituela en-



Giza inguru barik hurrek ezin dute hizkuntzarik ikasi. Hizkuntz horniak, haurtzaroan, entzuten d(it)uen hizkuntza(k) ikastera behartzen du haurra.

tzungo, edo oso gutxitan entzungo dituela. Alabaina, hizkuntz esperientziak hizkuntz ezagutza bideratzeko azalpenik ez badu, hizkuntz ezagutzarako beste iturriren bat edo batzuk izan beharko ditu haurrak. Eta iturri hauek, noski, esperientziatik at egon beharko dute. Entzuten duen hizkuntzaren imitazio hutsak ezin du daukan hizkuntz ahalmen ikaragarria justifikatu. Nola liteke, bada, esperientziak ematen diona baino gehiago jakiteko gai izatea?

## Gramatika unibertsala

Giza garunak zenbait baliabide izan behar du hizkuntz esperientziatz gain. Baliabide hauek genetikoki hornitu dira. Hizkuntz esperientzia baliabide hauen eragingarria dateke. Horrela, hizkuntza zehatza garatu ahal izango da haurraren garunean.

Genetikoki hornitutako hizkuntz baliabideen multzo honi Gramatika Unibertsala deitu zaio. Gramatika Unibertsala, beraz, esperientziaren eragingarriez baldintzaturik hizkuntzaren hazkundea bideratzen duen horni genetikoa-ren zatia da. Baina zatia baino ez. Eta beronek mugatzen du, noski, gramatikaren eta sintaxiaren iharduera.

Bestalde, azken urteotan bada hizkuntzalari sortzaileen artean

hedaturik dagoen beste eritzi bat: agian Gramatika Unibertsalaz gain, giza garunean badela beste hastapen-multzoren bat fonologi oinarriak era berean edo antzeratsu bideratzen ditue-na.

Gramatika Unibertsala garunean zein aldetan edo ataletan dagoen edo nola eraturik dagoen erantzuterakoan, bide ezberdinak hartu dituzte zientzilariek. Baina esan dezagun gehienek garuna atalka eraturik dagoela uste dutela, eta atal bakoitza bereziki funtzio bati dagokiola. Garuna atalka eraturik balego, pentsatzekoa litzateke gramatika bera ere atalka eraturik dagoela. Baina atalkako eraketa honek beregain iharduteko gaitasuna ere ematen dio, eta hizkuntzaren jabe-kuntzaren garapenean sintaxiaren garabideak ere autonomoa izan beharko du.

## Atalkako eraketa eta parametroen teoria

Hizkuntzaren atalkako eraketaren eta sintaxiaren autonomiaren uste honi irtenbide egokiagoa bilatzearen, Chomskyk 1981. urtean hizkuntzari buruzko bere teoriaren birformulazio sakona egin zuen. Gramatika, sintaxia bezalaxe, osagai autonomoek eraikiriko sistematzat jo zuen, eta horrela, hizkuntzaren jabe-kuntza Gramatika Unibertsal parametrizatuaren bidez gertatzen dela proposatu zuen. Gramatikaren eta sintaxiaren osagai eta azpiosagai autonomo ezberdinek parametroren bat izango lukete nolabait gure garunean. Hurrek hizkuntza zehatza ikastean, parametro horiek ahalbideratzen dizkien aukera ezberdinetariko bana hautatu baino ez lukete egin beharko. Horrela ikasiko lukete hurrek ama-hizkuntzaren gramatika. Adibidez, hizkuntzalari batzuek proposatutako parametro bat *buru-paramete-*



Giza inguru normalean eta buru-kalterik ezean, haurtzaroan inor ezin daiteke inguruan entzuten duen hizkuntza ikastera uka.

troa litzateke. Parametro honek kategoria ezberdinen *burua* eta bere *osagarrien* egongunea bideratuko luke, eta euskara entzuten ari den haurrak, izen-sintagmaren arloan *burua*, hots, mugatzailea, izen-sintagmaren eskuinean ezarriko luke, gaztelaniadun haurrek ezkerrean jarriko luketen bitartean. Agian kategoria ezberdinetarako *buru-parametro* ezberdinak egon beharko lukete. Izan ere, baliteke kategoria ezberdinen *buruek* zein *osagarriek* egongune ezberdinetan gauzatzzea.

Hizkuntzaren jabekuntzaren garapen honek, uste zenez, haurrek ama-hizkuntzaren gramatikaren eta sintaxiaren oinarria goiz menderatzeko duten gaitasunari erantzungo lioke. Giza garunean, gizabanako guztiek parametro berak izango genituzke, baina gero, hizkuntza jakin bat ikasten dihardugula, parametroek eskaintzen dizkiguten aukeratariko bat hautatzean, hiz-

kuntza zehatzaren gramatika eta sintaxia menderatzeari ekingo genioke. Parametroek, noski, edozein giza hizkuntza, edo zehatzago esanik, edozein giza hizkuntzaren muina ahalbideratzeko gai izan beharko lukete. Gramatika Unibertsalak haurrari, beraz, ikasi behar dituen egitura-aukerak eskaintzen dizkio; garunean garaturik baititu. Haurrak, bere inguruan entzuten duenaren arabera, parametroa, dagokion aukeran, ezarri egin beharko du. Parametro guztiak ezartzean gramatika zehatz bihurtu du Gramatika Unibertsalaren hastapen-multzoa. Horrela ikasiko du, beraz, bere hizkuntzaren gramatika eta sintaxia. Hautaketa hau, noski, ez da uste, kontzienteki egiten denik; badirudi, ostera, hizkuntz input minimoa entzunik gertatzen dela. Gainera, baliteke, hizkuntzaren baitan, parametroen ezarketara bultzatzen duten elementu eragingarriak izatea, eta hauek, garapenaren azkartasunaren baliagarriak lirateke.

Hau guztia, noski, laburturik azaldu dut. Eta ez laburturik bakarrik; idealizaturik ere bai. Baina teoria honek hizkuntzalariak parametroak mugatzera bultzatzeaz gain, euren jabekuntza nola ger-

tatzen zen ikertzera ere bultzatu zituen. Eta interesgarriak eta akuilugarriak izan dira (adibidez, Hyams-en ikerketa ustezko *pro-drop* izeneko parametroen haur ingelesaren jabekuntzari buruz).

Baina gaur egun asko dira, gramatika sortzailearen jarraitzaileen artean, parametroen teoria zalantzan jartzen dutenak. Gainera inork ez du uste, giza garunean, edo haurraren garunean, gramatika-ezaugarriak edo sintaxi-arauak (Gramatika Unibertsalari legozkiokeenak, noski) horrela 'idatzita' daudenik. **Ikerlariek honakoa uste dute: hizkuntzaren gauzatzek bideratzen duen giza garunaren atalak iharduteko duen erak mugatzen dituela guk horrela definitzen ditugun ezaugarri eta arauak. Garunaren prozesatzeko moduak eraiki du, beraz, guk Gramatika Unibertsala**

Oso goiz, urte bi inguru, hasten dira haurrak gramatika-ezaugarriez jabetzen. Perpausaren oinarriko egituraz hiru urterekin, gutxi gora-behera, jabetzen dira. Garabide hau hainbat hizkuntzatan ikusi ahal izan da.



deitzen diogun hastapen-multzo hori. Eta hori da, hain zuzen, genetikoki horniturik jaso duguna.

Teoriaren marko orokorra edo oinarria, beraz, oraindik baliagarria dela pentsatzen dugu askok eta askok. Beste kontu bat da helmugara iritsi baino lehen zelako bidea geratzen zaigun jakitea eta zehaztea.

## Hizkuntza zehatzen jabekuntza

Baina, zelan ikasten ote dute haurrek ama-hizkuntza? Arlo honetan burutu diren ikerketek zer diote guzti horretaz?

Gaur egun, zientzi arlo hau oraindik oso gutxi jorratu bada ere, zerbait esan dezakegu guzti honetaz. Eta ez usteetan oinarriturik; datu zehatzetan baino. Hala ere, onartu egin behar dugu arlo honetan hasiera-hasieran baino ez gaudela.

Entseiu/errakuntza bidez ikasten ote dute adibidez, gure haurrek euskara? Hasteko, noski, entseiu/errakuntza sistema hau zelan ulertzen dugun mugatu beharko genuke. Edozelan ere, datu guztiak beste zerbait adierazten dutela aurrera dezakegu.


Antza denez, haurren ama-hizkuntzaren jabekuntzaren garapena perpausak duen egiturak berak bideratzen du. Frantsesez, alemanieraz edo euskaraz ikasten duten haurren datuak ikusirik behintzat, baieztapen hau egin dezakegula uste dugu. Haurrak urte bi inguru dituztenean hasten dira gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak erabiltzen eta hiru urte dituztenerako perpausaren oinarritzko egituraz aise jabetu direla dirudi. Datuak, noski, gutxi gora-beherakoak baino ez dira.

Haurrek ez dituzte bapatean gramatika-ezaugarri guztiak erabiltzen. Badirudi garabidea jasaten dutela, eta garabide honek dituen aro ezberdinak perpausaren egitura hierarkikoak mugaturik dau-

de taiutuak: Aditz kategoria, INFL funtzio-kategoria eta KONP funtzio-kategoria. Eta egitura hauez jabetzen diren aroak bizpahiru hilabetez tartekatuak daudela dirudi.

Ez dugu uste entseiu/errakuntza sistemaren bidez haurrek ikasten dutenik. Gramatikaren eta sintaxiaren jabekuntza behintzat ez. Lexikoaren jabekuntza, ostera, beste kontu bat da. Agian, hitzak banaka ikasiko dituzte, eta hor baliteke nolabaiteko entseiu/errakuntza sistematizazioa era-

gidaturik eta lexikoen ikasketa hutsak bultzaturik gauzatu dutela. Gero, gramatika-garabidea hasiz gero, 6, 8 edo 10 hilabeteetan haurrak mendeko perpausak eraikitzeke gai dira. Pertsona-komunztadura ezberdinak ere badarabiltzate, subjektuari, zehar-osagarriari eta osagarri zuzenari dagozkienak, edo, adibide batzuk jartzearen, aditz-aspektu ezberdinak, galderetako hurrenkera bereziak, izen-sintagmak mugatzeko aukera ezberdinak eta erlatiboak zein beste



biltzea baina ez gramatika-kategoriak bereganatzean. Baina gramatika sortzailearen aldeko hizkuntzalariek ez dute egundo lexiko-arloko hitzak banan-banan ikasten direnik ukatu. Beste arazo bat da lexiko-arloko unitate hauek, hots, hitzak, sortzen edo isladatzen dituzten egiturak zelan bereganatzen dituzten.

Haur euskaldunek, esate baterako, hasieran, ez dituzte gramatika-ezaugarriak ez sintaxi-arauak erabiltzen euren hizkuntza gauzatean. Urte birekin, gutxi gora-behera, noski, hasiko dira lehen gramatika-kasuak eta adizki jokatutak erabiltzen, esateko. Baina lehenago erabili duten hizkuntza, badirudi, hastapen pragmatikoak

Haurrek gramatika-ezaugarri guztiak ez dituzte bapatean erabiltzen. Hizkuntzaren garabidea mailakatuta gertatzen da, aldi edo aro ezberdinetan.

hainbat motatako menderagai-luak eta berauek sortarazten dituzten egiturak.

## Akats askorik ez

Baina haurrek, ez dute horrenbeste akatsik egiten jabekuntza-garapenean zehar. Adibidez, 1;06-4;00 adin-bitarteko hiru haur euskaldunen (hilero ordu-

betez) bidegrabaturiko ekoizpe-  
na ikusirik, behin ere ez dugu  
ikusirik ezezko perpausetan gerta-  
tzen den ordena-aldaketan hau-  
rrek okerrik egiten dutenik.

Baina mintzaide helduak ere ez  
ote dugu okerrik egiten? Edo,  
haurrek egiten dituzten ustezko  
ekoizpen okerrak, ezin ote dira  
jabekuntzaren garapeneko joko-  
bide estrategikoak bezala inter-  
pretatu? Adibide bat jarritz: hau-  
rrek, hasieran ergatiborik era-  
biltzen ez badute —kontutan har  
dezagun hasieran ez darabiltela  
gramatika-ezaugarriak, eta beraz  
ergatiborik— egitura hau erabil-  
tzen hastean, zergatik pentsatu  
behar dugu beti ez badarabilte,  
dagokionean, noski, ez erabiltzea  
okerra dela, akatsa dela? Ezin al  
daiteke pentsa, aurretik egiten  
zuten bezala, hots, gramatika-  
ezaugarriak ez zerabiltzaten  
araoan, orain ere, urrats berri  
honetan, ikasitako ergatibo-eza-  
garria berriaz batera lehengo  
forma ere gordetzen dutenik?

Jakina da haurrek lehenago arau orokorrak  
ikasten dituztela, eta salbuespenak, helduen  
hizkuntzaren arabera zuzen daudenak,  
geroago. Horrela, *ponido* —arau orokorraren  
arabera— *puesto* —salbuespena— baino  
lehenago darabilte.



Adibide ikusgarriagoa jarritz,  
demaun haur batek 2:00 adina  
duen arte *ni apurtu esan duela*  
gramatika-ezaugarriak gabeko  
araoan; baina gero 2:02 adina due-  
nean, *nik ekarri eta horrelakoak*  
esaten hasten dela, bere garabi-  
dean urrats berri batean sartze-  
an. Une honetan, dagoeneko er-  
gatiboa darabilenean, batzuetan  
*ni apurtu* esaten segitzen badu,  
zergatik uste behar dugu akatsa  
dela? Ez ote da, aitzitik, oraingoz  
2:00 adinaz aurreko ekoizpenen  
erabilerari ere batzuetan eusten  
diola?

Badirudi euskal haurrek subjek-  
tuarekiko eta zehar-osagarriare-  
kiko pertsona-komunztadura du-  
ten adizkien erabilera osagarri-  
-zuzenarekikoa dutenak baino  
lehenago darabiltzateela, eta nola-  
bait hurrengo urratsa dela azken  
hauek erabiltzea. Zergatik, bada,  
garapeneko une zehatz batean  
haur batek *nik horiek gura dut*  
esaten badu okertzat jo? Kontu-  
tan har dezagun bere gramatika-  
-garapena apurka-apurka aurre-  
ratzen dela, eta oraingoz ez due-  
la gramatikaren atal hori berega-  
natu.

Har dezagun beste adibide bat.  
Gaztelaniaz ikasten diharduten  
haurrek, hasieran, partizipio guz-  
tiak *-ado/-ido* amaieraz ekoizten  
dituzte. Horrela, *venido, traido,*  
*comido*, eta abar erabiltzen dituz-  
ten bitartean *ponido* eta antzeko-  
ak ere gauzatzen dituzte. Baina  
zer erakusten digu balizko erra-  
kuntza honek? Haurrak araua  
ikasi duela, eta aditz guztiei mor-  
fema bera eransten diela. Ondor-  
ren, lexiko-zuzenketa burutu  
beharko du eta forma irregula-  
rrak banan-banan bereganatu  
beharko ditu. Edozelan ere,  
araua da ikasi duen lehena.

Okerraren kalifikazioa, beraz,  
erlatibizatu egin beharko genuke-  
la uste dut. Edozelan ere, hau-  
rrek ekoizten dituzten akatsak  
edo okerrak guk helduok ekoiz-  
ten ditugunak baino askoz gehia-  
go ez direla uste dut.



## Gramatikaren erabilera goiztiarra

Mintzaide helduek gramatika-  
ezaugarriak eta sintaxi-arauak  
erabiltzen ditugula onartzen ba-  
dugu, eta haurrek guk egiten di-  
tugun bezalako ekoizpenak gau-  
zatzen badituzte, eurek ere gra-  
matika-ezaugarriez eta sintaxi-  
-aruez baliatzen direla onetsi  
beharko dugu. Honek dirudi ja-  
rriera zilegizkoa, behintzat.

Hau da, haur batek, adibidez,  
zehar-osagarriarekiko pertsona-  
-komunztadura duen makinatxo  
bat adizki laguntzaile ezberdin  
egoki 3:00 adina bete aurretik  
badarabil, pentsatzekoa da, nola-  
bait, gramatikaren arloko eza-  
garri hori badaukala. Eta haur  
euskaldun batek, esaterako, 2:04  
- 3:00 adina bitartean, eta soilik  
hileroko ordubeteko bidegraba-  
ketako ekoizpenari begiraturik,  
gai da honakoak ekartzeko: *digu,*  
*diogu, dit, dizut, diot, diet, didazu,*  
*dio, dizkit, dizkiogu, dizu, ...*  
Ekoizpen hauek behin baino  
gehiagotan ikus ditzakegu egoki



Hizkuntzaren jabetkuntza mailakatua denez, zaila da garabide honetan akatsez hitz egitea.

Haurrak, aldi bakoitzean, garabideak mugatzen dizkion egiturak eta aurreko aldietakoa baino ezin ditu erabili. Batzuetan ez datoz bat helduen hizkuntzarekin, baina garabideari dagozkio.

erabilirik, perpausaren eta tes-tuinguruaren arabera, noski. Haur euskaldunak gramatikaren eta sintaxiaren oinarriaz hiru urte ingururako jabetzen direla baieztatu dezakegu. Horrela, guk aztertutako haurrek adin honetarako: deklinabide-kasu ezberdina zuzen erabiltzen dituzte, numeroari zein kasuari begiraturik; izen-sintagmaren hurrenkera egoki gauzatzen dute; aditz-aspektuak egoki erabili eta ulertzen dituzte; edo aditzaren bidez isladatzen ditugun hainbat gramatika-ezaugarri ederto betetzen dituzte. Jar ditzagun, adibidez, haur batek burututako hainbat mendeko perpaus (haur horrek

bizkaieraz hitz egiten badu ere, adibideok euskara estandarrean jarriko ditut): *zuk eroan duzuna non dago?* (2;06), *esan du beste bat hartu behar duela* (2;06), *ez duzu nahi medikuenera joatea ala?* (2;06), *ez daki zer den* (2;07), *Tximino Gorri joan zen e azokara ta ja amatxo nahi zuela eta ...* (2;07), *eta Jurgi ez dakit noiz etorriko den gure etxera* (2;08), *horra ez joateko eta ni joan nintzen* (2;08), *esan duzu ez dela baina bada* (2;09), *pentsatu dut daukala apurtuta* (2;09), *ikusiko zelako txikia den!* (2;09), *eta hau ez dakit non ipiniko dudan* (2;10), *eman eskuan daukazuna!* (2;10), *eta ikusiko duzu zelan joko dudan* (2;10), *atzo ikusi genuena* (2;10), *umeez egiten dituzten okerkeriak* (2;11), *ba pentsatzen dut hortik gizon bat dagoela* (2;11), *pentsatzen dut ez zarela etorriko* (2;11), ...

Baina erabilera soila ezezik, bere hizkuntz ekoizpena, gramatika-ezaugarrien arabera zuzentzeko ere gai da haurra. Eta guzti hori ere 3;00 adinaren inguruan. Hona hemen haur berak ekoiztutako bizpahiru adibide: *hori ez du, ho-*

*rrek ez du eroaten* (2;05), *ba nik ni etorri naiz zuregana eta ...* (2;07), *ze Jontxuk Jontxu ez zan konturatu* (2;10), *hor ere zelan daukagun errobedak eta zelan daukagun errobedak* (2;11). Mintzaide heldu batek ekoizpen hauek gauzatu balitu, bere hizkuntza gramatika-ezaugarriez zuzentzeko gai dela esango luke edonork. Zergatik ez zaio ahalmen eta gaitasun bera onartu behar 3 urte ez dituen haurrari?

Hizkuntzalari sortzaileek, labur-bilduz, gizabanakoek gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak haurtzarotik erabiltzeko daukagun gaitasuna ikusirik, eta gaitasun hau zelan garatu den gugan aztertutik, inguruaren eraginaz gain garunean sortzetik daukagun horni genetikoaren iritzia bermatu egiten dela uste dute. Gramatikaren jabetkuntza ahalbideratzen duen horni genetiko horri Gramatika Unibertsala deitzen diote eta beronen funtsa eta berezitasunak zeintzuk diren argitzen saiatzen dira. Ahalegin ugari egin den arren, oraingoz hastapen-multzo honen izatea eta ihar-duera argitzeke daude, baina, nolabait behinik behin, bidea egokitzat jo dezakegula uste dut.

Hizkuntzalari sortzaileen ikuspuntua, beraz, hizkuntz jabetkuntzaren garapena haurrek gramatika-arauak eta sintaxi-arauak oso goizetik erabiltzeko duten gaitasunean oinarritzen da. Jabetkuntza-garapena ez da ikasketa koantitatiboan edo banakako osagaien metaketan oinarritzen; arauen aplikazio orokorrean baino. Abiapuntu honetatik zaila dirudi konexioismoak egiten dion kritikaren baliagarritasuna. Areago frogatzat erabiltzen den esperimendua metaketa koantitatibo baten ikasketa denean.

